

Tantarik tanta... Berdintasunaren olatua!

BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA / UNIDAD ADMINISTRATIVA DE IGUALDAD • MARTXOA / MARZO • V

Ez izan zalantzarik, konprometiturik eta etengabe diharduen herritar talde bakar batek mundua aldatzeko ahalmena dauka

Margaret Mead



Sufragistas inglesas a principios del siglo XX

EDITORIALA

FEMINISMOTIK MUNDUA ALDATZERA

Margaret Mead antropologoaren hurrengo hitzak ekarri nahi ditugu gogora oraingoan: **“Ez izan zalantzarik, konprometiturik eta etengabe diharduen herritar talde bakar batek mundua aldatzeko ahalmena dauka”**. Emakume konprometitu askoren borrokaren ondorioz, gaur egun emakumeok bozkatzeko eskubidea dugu, ikasi dezakegu, etxetik kanpo lan egin eta lan horren truke ordainsaria jasotzeko aukera dugu, unibertsitatara joatea ere erabaki dezakegu... **Eskubide eta aukera horiek ditugu Feminismoari esker, hau da, desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeek eta gizonek eskubide berdinak izateko bilatzen duen gizarte mugimenduari esker**. Izan ere, historian zehar emakumeok ez ditugu izan orain normalak iruditzen zaizkigun aukerak, eta

horiek lortzeko gizarte aldaketa asko egin behar izan dira. Coral Herrerak feminismoaren hurrengo lorpenak azpimarratzen ditu: lanbidea izateko aukera, sexualitatea eta ugalketaren arteko bereizketa, amatasuna aukera libre izatea, bigarren eta goi mailako hezkuntzan parte hartzeko aukera izatea, eta sexualitate-orientazioa askotariko izatea.

Ezin da ukatu feminismoak gizarte mailan lortutakoarekin emakumeok irabazi egin dugula hainbat arlotan, baina gizonzkoek ere bai, batez ere maila pertsonalean, autonomia mailan eta harremanetan, izan ere gainetik kendu ahal izan dute maskulinitate hegemonikoaren zama.

Duela egun batzuk **Martxoaren 8a,**

Emakumeen Nazioarteko Eguna, izan da. Egun hori **desberdintasunak salatzeaz gain, historian zehar emakumeen ekarpenak, mundu osoko emakume-erreferenteak aipatzeko eguna da, baita historian zehar eta gaur egun emakumeek beraiei dagozkien eskubideak izateko borrokatu behar izan dutena agerian uzteko ere**. Tanttakako 5. ale honetan, feminismoen ekarpenak ezagutzera eman eta balioetsi nahi ditugu eta horretarako, mugimendu feministako kide Teresa Maldonari elkarrizketa egin diogu. Gainera, ale honetan, besteak beste, aurkituko duzu Sufragistak pelikularen inguruko informazioa, emakumeen parte hartze sozial eta politikoaren inguruko zenbait datu, eta Emakundek aurtengo Martxoaren 8rako egindako kanpaina.

TERE MALDONADO. FILOSOFIA IRAKASLEA DA BIGARREN HEZKUNTZAN, ETA MILITANTE FEMINISTA.



Zer da feminismoa eta zein da bere helburua?

Uste dut **FEMINISMOA DELA, BATEZ ERE, GIZARTE MUGIMENDU BAT; ERREALITEA (MUNDUA, GIZARTEA ETA BAITA GIZABANAOKAK ERE) HOBETZEA BILATZEN DUENA, JUSTIZIAREN IKUSPUNTUTIK.** Hori lortzeko, erronka eta zeregin asko ditu feminismoak, alderdi teorikoan zein praktika politikoan (oso lotuta daudenak); feminismoaren garapen teorikoak zein gauzatze politikoak, izatera pertsonala ere izan arren, beti izaten dira zeregin kolektiboak: feminista guztion arteko eztabaidei, akordioei zein desakordioei esker egiten dugu aurrera. Beraz **feminismoa, beste mugimendu askorekin batera, mugimendu eraldatzailea da, eta bere sustraia eta mamia politikoak dira erabat.**

Zure ustez zeintzuk dira feminismoaren lorpen historiko nagusiak?

Beti aipatu daitezke botoa, hezkuntza, enplegua, eta holakoak. Hala ere, horiek guztiak oso garrantzitsuak izan arren, **NIK PENTSATZEN DUT LORPENIK HANDIENA ZERA DELA: MUNDUA, GIZAKIA, GIZAKION ARTEKO HARREMANAK, BIZITZA BERA IKUSTEKO MODUA GOITIK BEHERA ALDATU IZANA.**

Feminismoari esker, gaur egun normalizat hartzen ditugu guztiok, ez feministok bakarrik, garai batean pentsaezinak ziren gauza asko: amatasuna ez dela patua, erabakia baizik; sexualitatearen helburua ez dela zertan ugalketa izan,... Naturalizat zer ulertu behar dugunaren edukia aldatu dugu erabat. Eta hori da, Celia Amoros filosofo feministak esaten duen modura, aldaketa antropologiko erraldoia. Egia da hor jarraitzen dutela indar atzerakoi oso boteretsuek, eliza katolikoak kasu, baina eurengan dago orain frogazama, ez guregan. Gezurra badirudi ere (eta gezurra dirudi, hain zuzen, feminismoari esker!) "Ezkon-

“Mundua aldatu dugu, bai, baina hain da sakona feminismoak aldarrikatzen duen aldaketa non oraindik lan itzela baitugu aurrean.”

du zaitetz eta izan mendeko” titulua duen liburu bat argitaratu ahal du egun gotzain batek, baina albiste bihurtzen da berehala. Orain lauzpabost hamarkada holako deialdi edo gonbite batek ez luke inoren arreta deituko.

Zeintzuk dira, zure ustez, feminismoaren erronka nagusiak?

Uste dut, **ZORITXARREZ, ORAINDIK EMAKUME ETA GENERO-DISIDENTEAREN KONTRAKO BORTXAKERIA MATXISTA (LEKU OSO DESBERDINETATIK GAUZATZEN DENA) DESAGERRARZTEA IZAN BEHAR DELA LEHEN EGITEKOA.**

Horrez gain, nire ustez, feminismoak (edo feminismo mota jakin batek, behintzat, feminismo antikapitalistak, hain zuzen ere) **beste erronka erraldoi bat du aurrean, bizitza eta bizitza duinaren aldeko balioak erdigunera mugitzea.** Mundu garaikidean, patriarkatuarekin batera, kapitalaren legea dago jaun eta jabe indarrean. Kapitalaren benefizioen izenean giza eskubideak bigarren edo hirugarren planora mugitu dira, maila jasanezinetara; kapitalismoaren krudeltasunak (patriarkatuarena, adibidez) ez du amaierarik. Kontsumoaren, produkzioaren eta garraioen ereduak aldatu behar ditugu, eta baita balioak ere: zeri eman lehentasuna, garrantzia bizitzan. Eta ezinbestekoa den eraldaketa honetan feminismoak ere gauza asko ditu esateko. Lortu behar dugu jendea-ri helaraztea ideia horiek eta batez ere, aldaketa gauzatzea gure bizitzen egunerokotasunean eta politikagintzan.

Hori guztia, baina, **beste gauza askorekin batera: feminismoaren lorpenak emakume guztiengana zabaltzea; pentsamendu binarioa hondatzen jarraitzea; gure borroka, justiziaren aldeko beste borroka askorekin bateratzea; etsai eta oztopo berriak ondo identifikatzea (erangikorra izateko); mundu globalaren posibilitateak ondo aprobetxatzea (feministon arteko sareak eta konplizitateak indartuz) eta arriskuak (arrazakeria, inperialismoa edo kontsumismoa, adibidez) argitasunez eta ausardiarekin saihestea feminismitik... Askok lortu da, baina oraindik beste horrenbeste falta zaigu!**

Zure ustez, jendarte feminismoaren aldarrikapenak bere gain hartuz doa? Eta zein arlotan onartu dira gehiago eta zein aldarrikapenekin onarpena ez da hain handia izan?

Erantzuna paradoxikoa da: bai eta ez. Ezin ukatu, batzuetan esan den modura, XX. mendeko hasierako emakumeek eta XXI. eko hasierakoek, oro har eta salbuespenak salbu, ez dutela inolako antzik. Gure “amamek” (sufragistek eta beste emakume borrokalariek) sekulako ahaleginak egin zituzten, euren garaiko gizon eta emakume askoren iseken eta erasoen kontra. Guztion mesederako izan ziren aurrerapauso horiek. **Gaur egun, emakume zein gizon askok, euren buruak feministatzat hartzen ez dituzten horietakoek, defendatuko lukete egun batean aldarrikapen feministak izan zirenak.** Baina, zorionez, orain ez dira defendatu behar, iritzi arrunta bihurtu direlako, ez dira kolokan jartzen, inkontzienteki onartzen dira, naturaltasunez. **GIZARTEAREN BAZTER GUZTIETARA ZABALDU DA FEMINISMO ZEHAZTUGABE EDO LAUSOTU MODUKO BAT, EZ DUENA BERE BURUA FEMINISTA AITORTZEN, BAINA FEMINISMOAREN IDEIAK ETA ALDARRIKAPENAK DARAMATZA BARRUAN.** Horregatik ez da eskandalua gizon bat ikustea ume bati pixoihalak aldatzen. Arazoa da gehiengotan emakumezkoak izaten direla oraindik pixoihalak aldatzen dituztenak.

Gehiengo handi batek onartzen du eskubide berberak izan behar ditugula guztiok, teoriarik behintzat. Zailagoa da onartzea, ordea, gizarteratze prozesuan, heziketan, konturatu barik askotan, ezaugarri desberdinak, kontrakoak eta batzuetan osagarriak bultzatzen ditugula neskato eta mutikoengan. Eredu binario horiek sortu eta indartu egiten dira gune aniztatetik, baina askotan ez ditugu “ikusten”, feminismoaren fokua ez da izan arrakastatsua oraindik horiek detektatzen laguntzeko, ikusgai bihurtzen. Hor daukagu ataza.

Mundua aldatu dugu, bai, baina hain da sakona feminismoak aldarrikatzen duen aldaketa non oraindik lana itzela baitugu aurrean.

UR TANTAK

«BERDINTASUN EZA EZ DA BEREZ SORTZEN, EGIN EGITEN DUGU. ALDATU DEZAGUN. EGIN DEZAGUN BERDINTASUNA».

Aurtengo **Martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, Emakunde**k arreta jarri du neskek eta mutilek eguneroko jasotzen dituzten mezu sexistetan, generoen arteko botere-harremanak bere horretan betikitzen dituztelako. **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bat egin du kanpaina horrekin.**

Kanpainak salatzen du neskek, besteak beste, edertasunari, ontasunari, diskreziolari, zaintzari eta otzantasunari buruzko mezuak jasotzen dituztela, eta mutilek, be-



rriz, agresibitateari, arrakastari, ambizioari edo sentimenduak ukatzeari buruzkoak. Adibidez, neskek, nagusiki, ederragatik balioesten dira, eta besteekin atsegina izateko hezten dira («Bai polita nire neska!»); mutilek, aldiz, ahalduntze-mezuak

jasotzen dituzte («Nire txapelduna!»).

Gazteek egunero jasotzen dituzten mezuez jabetu behar gara, nortasuna eraikitzen dutelako jasotako tratua araberak: emakume eta gizon izaten ikasten dute eragile gizarteratzaileek –familialak, eskolak, lagunak, komunikabideak, publizitateak– helarazitako mezuen bitartez. Horrenbestez, **ohartu behar gara nork bere esparruan berdintasuna lantzen dezakeela; alegia, gizartea osatzen dugun guztion egitekoa da.**

ZUREA DA HITZA!

Zure ustez zein eremutan beriziki da garrantzitsua lan egitea emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera pausuak emateko?

Eskola esparru ezin egokiagoa da berdintasunaren alde lan egiteko, berdintasuneko gizartearen erroak tinko finkatzeko eta berdintasunean oinarritutako balioak landu eta transmititzeko. Egundak, gero eta hezkuntza komunitate gehiago inplikaturik daude hezkidetzaren aldeko eraldaketan: eskola leku seguru bat izateko, nesken eta mutileen berdintasuneko garapena bermatzeko,



Alfonso Caño
ISEI-IVEIko Gizarte Zientzietako teknikaria

genero-indarkeria prebenitzeko, ikasleen arteko harreman pareki-deak izateko...

Bikaintasuna definitzen denean, arreta jarri behar da emaitzak hobetzean, eta ekitatean edo ikasle guztientzako gaitasun guztiak garatzean. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu berdintasunaren erronka eguneroko jardueran.

Nire ustez ezinbestekoa da haurrekin eta gazteekin lan egitea. Bai irakaskuntza formalaren aldetik, bai familien barruan, bai aisialdian taldeetatik. Oso hezkagarria iruditzen zaizkit inguruko nerabeei elkarizketa arruntetan entzuten dizkiedan "ideia" batzuk. Horrelako topikoak entzun izan ditut nesken ahotik: "zure arropa ez badu gustukoa normala da zuri esatea horrela ez janzteko", "maite bazaitu, zuloak normalak dira", "egia al da mutil baten



Josebe Alonso
Artxibo teknikaria

gustukoa ba zara zurekin sartuko dela? Eta batzuetan brometan joko zaituela?", edota mutilen futbol entrenatzaile bati: "horrela jotzen duzu pilota? Neska bat ematen duzu".

Zoritzarrez, ez daukat konponketarako proposamenik baina saiatzen naiz nire eremu pribatuan aukera berdina ematen neskei eta mutilei. Genero estereotipoen kontra arlo guztietan borrokatu behar dugula uste dut.

Inglatera, principios del siglo XX. Años antes de que estalle la Primera Guerra Mundial, las mujeres exigen sus derechos políticos, más concretamente el derecho a votar.

En esta película sobre los primeros movimientos feministas, encontra-

mos a Maud Watts (Carey Mulligan), una luchadora de la clase obrera, explotada en una lavandería desde niña. En su lucha por la dignidad y la de sus compañeras, la joven no pondrá solamente en riesgo su trabajo, su familia y su hogar, sino también su propia vida.



SUFragISTAS
Dir. Sarah Gavron.
2015. Dur. 106 min.

Ba al dakizu?

En cuanto a la **participación de las mujeres en la vida social y política de Euskadi**, el informe **Cifras 2015 de Emakunde** señala que:

- Entre los **sindicatos mayoritarios**, solo LAB tiene a una mujer como Secretaria General. En el resto de sindicatos el porcentaje de mujeres en sus comités ejecutivos se sitúa por debajo del 50%.

- Con relación a las **entidades financieras**, las cuatro están presididas por un hombre (BBVA, Laboral Kutxa, Fiare y Kutxabank).

- En cuanto a la **participación en instituciones públicas**:

- En el **ámbito autonómico**, el Consejo de Gobierno del GV cuenta con 4 consejeras y 4 consejeros. Del total de **viceconsejerías y secretarías generales** de los diferentes departamentos del Gobierno, el 31% están dirigidas por mujeres.

- En el **ámbito foral**, los tres Gobiernos Forales están dirigidos por hombres. Pero en todos existe un cierto equilibrio de diputadas y diputados en los departamentos.

- En el **ámbito municipal**, sólo un 24,7% de los consistorios de la CAE son presididos por alcaldesas.